



EUSKOOP

ERKIDE - Irakaskuntza

HUMANITATEAK ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

IKASKIDE PROIEKTUA

EBALUAZIO TXOSTENA
10-11 ikasturtea

AURKIBIDEA

1.- Ebaluazioaren diseinua.....	3
2.- Esperimentazio faseari buruzko datu orokorrak.....	7
3.- Jarraipen fasea.....	8
4.- Ikasgeletan egindako esperientzien balorazio orokorra (irakasleen iritziak).....	12
5.- Ikasgeletan egindako esperientzien balorazio orokorra (ikasleen iritziak).....	25
6.- Ondorioak.....	29

EBALUAZIOAREN DISEINUA

Ikasturtearen hasieran diseinu orokor bat finkatu genuen esperientziaren ebaluazioa aurrera egiteko. Batetik, informazioa biltzeko tresnak zehaztu genituen, eta bestetik, guneak hausnarketa egiteko.

Inplementazio fasearen jarraipena egiteko astekari bat idatzi beharra aurreikusi genuen. Bada, astero-astero irakasleak balantze labur moduko bat egingo zuen, non hausnarketak, arazoan identifikazioa eta hurrengo urratsaren nondik norakoa zehaztuko zituen. Bikoitza antzematen genuen astekariaren erabilera. Batetik, irakaslearen beraren hausnarketarako, eta ondorioz, bere praktika ildoak hobetzeko baliagarri. Eta bestetik, aholkularion jarraipenerako tresna interesgarri gisa ikusten genuen, zeren bertan korapilo nagusiak identifikatuta hartara zuzenean noratu baikenezakeen gure esku hartzea. Bide batez, eta azken funtzio honekin lotuta, formazio mintegiak diseinatzeko ere bertatik atera nahi genituen gai, kezka edo arazo nagusiak.

Aitortu beharra daukagu, hasteko, tresna honek ez dituela bete aitortzen genizkion funtzioak. Halako astekari bat idazteak hausnarketarako denbora eta idazteko patxada eskatzen zituen, eta irakasleek, egia esan, ez dute eguneroko lan jardunean horrelako baldintzarik aurkitu. Ondorioz, jarraipenari lotutako informazioa ahoz transmititu da irakasleak eta aholkulariak ikastetxeetan egindako jarraipen-bileretan. Ezagutza horretatik sortu da, era berean, mintegietarako aukeratutako gaiak.

Hiru mintegi egin dira ikasturtean zehar honako gai hauen inguruan:

1. mintegia: Lehen hiruhilabetekoan eginiko esperientzien aurkezpena eta haien balorazioa.
2. mintegia: Taldekatzearen inguruan sorturiko arazoak
3. mintegia: Esku hartzearen inguruan sorturiko arazoak

Esperientziak bukatu eta azken balantze gisa bi tresna diseinatu genituen. Bata, ikasleen iritziak eta balorazioak jasotzekoa, eta bestea, irakaslearen balorazio orokorra egiteko galdetegia. Ikasleen iritzia jasotzeko prestatutako protokoloa bi kasutan soilik gauzatu da, eta txosten honetan aurkeztuko dira emaitza horiek. Guk proposatutako prozedurari heldu gabe, hainbat irakaslek jaso egin dute beren ikasleen balorazioa, baina horien berri idatzirik ez daukagunez ezin dugu hona ezer sendorik ekarri. Irakasleen balorazio orokorra jasotzeko galdetegia izan da, dudarik gabe, tresnetan arrakasta gehien izan duena. Balio beza erakusle gisa ondorengo datuak: guztira 30 proiektu burutu badira, 20 galdetegi jaso ditugu. Irakasleen balorazio hauek osatuko dute txosten honetan atalik nagusietako bat.

Ondoren, diseinu honetarako prestatu genituen tresnak aurkeztuko ditugu:

1. tresna

Jarraipena egiteko astekaria

Astekariaren xedea ez da besterik baizik eta astean behin tarte bat hartzea (ordubete inguru) egun horietan gertatutakoaz hausnarrean jarduteko, eta paperean idatzita jartzeko. Zuri horrek asko balioko dizu, jakiteko nola zoazen, hasieran markaturiko helburuak gogoan, eta bestalde, jakiteko hurrengo astean zein lehentasunak finkatu behar dituzun. Honek lan pixka bat ekarriko dizu, baina haren ordainez argitasun handia eskuratuko duzu.

Astekari horrek ondoko lau atal hauek dauzka:

- 1) Sentsazio orokorra
- 2) Gauza interesgarriak. Ondo doazen kontuak
- 3) Ageri diren zailtasunak
- 4) Zailtasunak gainditzeko bideak

Atal hauek duten xedea, zure hausnarketari ordena pixka bat ematea besterik ez da.

Hausnarketaren fokua da “gaitasun orokorren garapena, lanketa eta ebaluaketa”.

Hau gogoan izatea oso-oso garrantzitsua da. Eskolan gertatzen diren alderdi guztiak hausnarketa-gai hartuko bazenitu, orduan lan ikaragarri zabala izango zenuke. Eta ez da hori gure asmoa. Nahi dugu, ordea, foku zehatz bat jarri, zure arreta hara biltzeko. Orduan, astekari hau idazterakoan gogoan hartu bakarrik “talde-lana”, “elkarlana”, edo “ikaskuntza kooperatiboa” gaitasun orokorraren inguruan markatu dituzun helburuak. Eta hausnartu, nola doan helburu horien garapena, lanketa, eta agian ebaluaketa ere.

Astekaria idazterakoan, gogoan izan, otoi, sakontasun eta argitasunez idaztea. Ezen, aholkulari taldeko kideok ere astero irakurri baitugu zuk idatzitakoa; besteak beste, jarraipen saioak behar bezala prestatzeko (jarraipen-saio horiek ikastetxeetan egingo dira esperientziak irauten duen bitartean). Ez da aski, orduan, era orokor eta baloratiboan aritzea (zuretzat, seguru asko, horixe nahiko da, zeren-eta sentsazio orokor baten azpian zerorrek ongi baitakizu zenbat gauza dauden, zer gertaera eman diren, baina ez ordea kanpoko irakurle batek) Hortaz, laguna, **kanpoko irakurle batentzat ere idazten ari zarela hartu gogoan**, eta ahal duzunetan, **argumentuak eman, edo gertaeraren bat kontatu, zure ikuspuntuak argiago azaltzearren**. Eredu gisa-edo, astekari baten adibide bat ematen dizugu hurrengo orrialdean.

Astekariari mugimendu eta bizitza eman diogu. Hortaz, hura bete, eta **kopia bat bidaliko diozu jarraipenaz arduratuko den aholkulari taldeko kideari**, hark jarraipena behar bezala egin dezan, eta nolabait, ikastetxean antolatuko diren jarraipen saioak mamiz horni ditzan.

2. tresna

Ikasleen balorazio eta hausnarketa egiteko prozedura

Ikasleen ikuspegiak jaso nahi genituzke balorazio-ekimena ongi borobiltzeko. Hori dela eta, bukaera aldean ikasleekin batera balorazio-saio bat egitea beharrezko ikusten dugu. Era honetara egin daiteke:

1.- Irakasleak lau enuntziatu prestatuko ditu, bere jardunaren oinarritzko puntuak bilduz.

- Enuntziatu bakoitzean ideia bakar bat aukeratuko du irakasleak. Agian, gauza asko dauzka puntu horretan sartzeko, baina orduan ebaluaketak oso luze joko luke, eta sakabanatzeko arrisku handia legoke. Horregatik diogu, esan beharrekoen artean irakasleak aukeratzea zein den punturik garrantzitsua eta hori eta ez besterik plazaratzea ikasleei.

- Fokua, gainera, zehatza izango da, balorazio osoan zehar bezala; hots, “gaitasun orokorraren garapena, lanketa eta ebaluaketa”

- Enuntziatu bakoitzak puntu bakar batera bilduko du arreta, hurrenkera honetan: helburua, prozedura, jokaera eta ebaluaketa.

a) Zuek zera honetan trebatzea...(irakasle bakoitzak bete beharrekoa) izan dut **helburu nagusia**...

Adibidea: “Aste hauetan nire helburu nagusia zera izan da: zuek elkarri begirunea erakustea talde lanean aritzean. Zeuen ustez lortu al dugu hori? Zein da zeuen balorazioa?”

b) Halako **prozedura**... (irakasle bakoitzak bete beharrekoa) erabili dut nagusiki...

Adibidea: “Aurrekoa lortzeko, laguntza gisa, talde guztietan pertsona bat jarri izan dugu, eta bere egitekoa zen begirunerik gabeko adierazpenak gelditu, eta mezua berriz esatea baina oraingoan begirunea adieraziz. Prozedura horrek lagundu al digu? Zein da zeuen balorazioa?”

c) Halako **jokaera**... (irakasle bakoitzak bete beharrekoa) izan dut nik saio hauetan...

Adibidea: “Nire jokaera nagusia zera izan da: nahi nuen zeuek zeuen kasa utzi, ikusteko nola jokatzeko zenuten, baina ez dut muturra sartu ikusten nuenean gauzak ez zirela ongi joaten, adibidez, oso keinu edo hitz zakarrak erabiltzen zenituztenean. Zer iruditu zaizue jokaera hori? Zein da zeuen balorazioa?”

d) **Ebaluaketa** egiteko halako sistema... (irakasle bakoitzak bete beharrekoa) erabili dut...

Adibidea: “Notaren heren bat lotuta dago aipaturiko helburuarekin, eta nik egindako behaketetan oinarritu naiz iritzia osatzeko. Zein da zeuen balorazioa honi buruz?”

2.- Lehenengo enuntziatua azalduko die ikasleei (hitzak ongi bilatu beharko ditu irakasle bakoitzak mezua ulergarri izan dadin ikasleen adina kontuan hartuta) eta zera galdetuko die: “zein da zeuen balorazioa horretaz?”

3.- Ikasle bakoitzak balorazioa idatziko du paper zuri batean, hiruko eskala erabiliz: ona, tartekoa, txarra. Paper guztiak era anonimoan jasoko dira. Kontaketa egingo da, eta emaitza arbelean idatziko.

4.- Txanda askea zabalduko da ikasleek beren iritziak, sententzioak edo proposamenak egiteko, eta horien bidez argituko dituzte ikasleek zeri lotuta dagoen atera den emaitza orokorra (balorazio ona, tartekoa edo txarra). Irakasleak entzuteko joera erakutsi beharko luke une honetan, ikasleen adierazkortasuna azkartzeko. Helburua ez da eztabaida sortzea, baina ikasleen usteak jasotzea.

5.- Gauza bera egingo dugu bigarren enuntziatuarekin, eta bukatzean, hirugarrenari heldu, eta azkenik, laugarrenari.

6.- Bukaeran, irakasleak ere eman dezake bere balorazioaren berri, eta orduan une egokia izan daiteke ikasleekin iritziak trukatzeko.

7.- Saioa bukatzean, inork jaso beharko lituzke akta batean saioan esandakoak. Irakasleak berak egin dezake, baina, beharbada, interesgarriago izango litzateke ikasleetako batek horixe egitea (batez ere, ikasleak adinean koxkorrak izanez gero)

3. tresna

Irakasleen balorazio eta hausnarketa jasotzeko galdetegia

Orain, esperientzia osoaren talaiatik, balorazio eta hausnarketa egiteko garaia da. Hortaz, egitasmoa bukatu bezain laster egin beharrekoa. Hausnarketa bideratzeko 10 puntu dituen gida bat prestatu dugu (ikus bukaerako eranskina). Burua pixka bat estutu eta nekatzea eskatuko dizu, ez dizugu gezurrik esango. Ordu pare bat, gutxi gora behera. Atalak hauexek dira:

- 1.- Ongi atera diren gauzen zerrenda egin
- 2.- Ongi ateratzearen arrazoi nagusiak zerrendatu
- 3.- Erdi bidean edo kili-kolo gelditu diren gauzen zerrenda egin
- 4.- Kili-kolo gelditzearen arrazoi nagusiak zerrendatu
- 5.- Gaizki atera diren gauzen zerrenda egin
- 6.- Gaizki ateratzearen arrazoi nagusiak zerrendatu
- 7.- Sententzio orokorra neurtu eskala batean
- 8.- Azaldu zure sententzio orokorraren puntu nagusiak
- 9.- Berriz ekiteko gelditu zaizun gogoia adierazi eskala batean
- 10.- Berriz egitekotan, zein gauza egingo zenituzkeen beste era batera. Ideia praktikoen zerrenda egin.

Hausnarketa hau egiterakoan, gogoan izan bereziki gaitasun orokorraren garapena, lanketa eta ebaluaketa, astekarian egin duzun bezala. Lana mugatu beharrez egiten dugu horrela.

Gida bete, eta aholkulari taldeko kideei bidali, arren. Irakasle bakoitzeko karpeta bana zabalduko dugu, non honako hauek gordeko ditugun:

- Hasierako programazioa (sekuentzia didaktikoa)
- Astekaria
- Diseinaturiko teknika eta prozedurak (zerbait berria edo berezia sortuz gero)
- Balorazio orokorra

ESPERIMENTAZIO FASEARI BURUZKO DATU OROKORRAK

Hona hemen zein proiektu egin diren aurtengo ikasturtean Ikaskide egitasmoaren barruan. Zein ikastetxetan egin diren, zein mailetan eta zenbat irakasle aritu diren ere zehaztu egiten da.

Ikastetxea	Proiektuaren izena	Maila	Irakasle kopurua	Ebaluazioa
Bihotz Gaztea	Matematika tailerra		2	X
Bihotz Gaztea	Olinpiada		1	X
Bihotz Gaztea	Txanela	LH4	1	X
Bihotz Gaztea	Herritartasuna	LH6	1	X
El Regato	Ongi etorri lehen ziklora	LH1/2/3/4/	4	X
El Regato	Ulermena lantzeko tutoritzak	LH 1/2	8	
El Regato	Ihauteriak	LH 3/4	8	
El Regato	Esnekien produkzioa Proiektua	LH 1/2	8	
Txantxiku	Zuzenbidea (2 proiektu)	Batx.2	1	X
Txantxiku	Finantzetako matematika	Batx.2	1	
Txantxiku	Mekanika eta industria teknologia	Batx.2	1	X
Txantxiku	Mundu garaikideko zientziak (2 proiektu)	Batx 1	2	X
Txantxiku	Teknologia	DBH1/2	1	
The English School	Gizarte zientziak- 3 proiektu	DBH4	1	X
The English School	Gizarte zientziak-3 proiektu	DBH 1	1	
Inmakulada	Enprendizaia	Lan.Hezik.	1	X
Inmakulada	Jolasaren metodologia	Lan.Hezik.	1	X
Inmakulada	Garapen sozioafektiboa	Lan.Hezik.	1	X
Inmakulada	Lehen laguntzak (sorospinak)	Lan.Hezik.	1	X
Inmakulada	Didaktika	Lan.Hezik.	1	
Inmakulada	Haurrei arreta eskaintzeko proiektua-Praktikak	Lan.Hezik.	1	X
Inmakulada	Ingelesa	Lan.Hezik.	1	
Pasaia-Lezo	Arazoen ebazpena (matematika)	DBH1/2/3/4	6	X
Pasaia-Lezo	Dieta egoki baten diseinua	DBH3	1	X
Pasaia-Lezo	Marinel gazteak	Desberdintze gelak DBH 1/2	3	X
Pasaia-Lezo	Txirridunlari bat ihes eginda doa Tourreko etapa batean. Irabaziko al du? (Fisika)	DBH4	1	X
Pasaia-Lezo	Ahozko euskal literatura	Batx. 1	1	
Sto. Tomas	History of everiday life	DBH2	2	
Sto. Tomas	Natur Zientzia	DBH3	1	X
Sto. Tomas	Historia zaharren testigantzen bidez	Batx. 2	2	X

Taula orokor horretatik abiatuta bestelako sailkapen batzuk atera daitezke esperientziaren ikuspegi orokorraz jabetzeko.

Gauzak horrela, esan daiteke honako arlo hauetan garatu direla proiektuak:

<i>Arloak</i>	<i>Proiektu kopurua</i>
Natur arloa	3
Zientzia arloa	5
Matematika arloa	3
Gizarte arloa	6
Hizkuntza arloa	2
Orokorrak	4
Modulu profesionalak	7

Eta proiektuak garatu diren maila erreparatzen badiegu honako datu hauek eskuratuko genituzke:

<i>Mailak</i>	<i>Proiektu kopurua</i>
Lehen Hezkuntza	6
DBH	11
Batxilergoa	6
Lanbide Heziketa	7

JARRAIPEN FASEA

Jarraipen saioak ikastetxeetan egin dira funtsean. Bertan irakasleek eta aholkulariok partekatu ditugu iritziak eta jardunbideak. Irakasleek aipaturiko kezkarik bizienak jaso genituen guk aholkulariok, eta garrantziaren araberako zerrenda bat egin genuen. Formazio mintegiak antolatzeke balio izan zigun zerrenda horrek.

Hona hemen, beraz, ikasturtean zehar, eta lehenengo hiruhilabetekoan bereziki, jaso genituen irakasleon zailtasunik behinenak:

- 1. Taldekatzearen ondoriozko arazoak eta bereziki ikasleen inplikazio eta konpromiso maila ezberdinak.** Talde txikiko elementuen artean edo/eta taldeen artean gertatzen da eta arazo handia sortzen zaigu, besteak beste hezkuntza

kooperatiboaren lehen printzipioa hausten delako maiz: elkardependentzia positiboa alegia.

2. **Irakasleen esku-hartzea: askotan ez dakigu nola jokatu**, zein autonomia maila eman, noiz eta nola egin gure esku-hartzea, eta gure behaketak? ...
3. **Modelajearen arazoa: ereduaren premia dute ikasleek**. Nola eskaini eredu horiek?: irakasleek euren jokabideekin (nolako maila ote dugu irakasleok zeharkako kompetentzietan?), talderen batekin zerbait lantzen dugunean besteek ikusiz ...
4. **Zeharkako kompetentzien lanketa eta ebaluazioa sistematikoak denbora eskatzen du**: nondik hartu denbora hori? Zer gertatuko da kompetentzia espezifikoaren mailarekin? Ditugun orduak ditugu eta nola bermatuko dugu gaiari dagozkion “ikasle beharrek” lortuko dituztela ikasleek? ...
5. **Proiektua diseinatzeak eta gauzatzeak lan zama handia eskatzen du**: irakasleok dugun denbora eta energia mugatua da eta eskuliburuak asko errazten zigun prestaketa lana. Orain nola egin guztion artean, gaiaren prestaketarako dugun denboraren kudeaketaren ikuspegitik ere hezkuntza kooperatiboaren proiektua egingarria izan dadin?
6. **Zenbait ikasleek hausnartzeko eta idazteko ohitura, gogo edo/eta trebetasun gutxi** dute. Eta denok dakigu ohitura sendoak barneratzeak denbora eskatzen duela. Berriz ere ... nondik hartu denbora hori?

Hona hemen, mintegiak zein gairen inguruan antolatu genituen, eta zein metodologia aplikatu genuen. Irakasleek egindako balorazioak jasoko ditugu gero bukaeran.

1. mintegia

Gaia: Lehen hiruhilabetekoan eginiko esperientzien aurkezpena eta haien balorazioa.

Metodologia: Irakasleei eman nahi izan genien hitza, euren esperientziak besteekin parteka zituzten. Ikastetxez ikastetxe txanda egin zen. Esperientziak aurkeztu zituzten aurrea, eta ondoren galdera-erantzunak.

2. mintegia

Gaia: Taldekatzearen inguruan sorturiko arazoak

Metodologia: Dinamika parte hartzailea lehenetsi genuen. Haren bidez, partaideen jakintza eta eskarmentua erabili nahi izan genuen denon artean arazo bati aurre egiteko. Jarduna honen atzean bazegoen uste bat guretzat garrantzi berezia zuena. Izan ere, talde kooperatiboan jarduerari berari heldu nahi genion guk geuk geure praktikan, hitzen bidez soilik ez-baina egiazko jardueraren bidez ager zedin zertan datzan talde kooperatiboaren metodologia. De Bonoren “gogoeta egiteko bost txapelen” teknikaz baliatu ginen taldearen dinamizazio lana egiteko. Hiru talde txiki egin genituen. Bakoitzak arazo bat identifikatu behar zuen euren esperientzietan oinarrituta. Arazo horretarako irtenbideak bilatzen saiatuko ginatke kide guztion artean. Gu dinamizatzaileok, informazio emaile hutsak baino gehiago parte hartzaile izango ginen, taldean gure iritzia besteek bezala ere emanaz. De Bonoren teknikak aukera ematen zigun dinamikaren urratsak eta lanaren eginkizunak behar bezala antolatzeke.

3. mintegia

Gaia: Esku hartzearen inguruan sorturiko arazoak

Metodologia: Berriro ere metodologia parte hartzaile eta kooperatibo batera jo genuen. Lehendabizi, arazo zehatz bat behar genuen aurrean eduki. Eta hartara hurbiltzeko berriro ere De Bonoren txapelen teknika erabili genuen. Behin arazoa identifikatuta eta denon artean adostuta eduki, haren azterketari ekin genion, Isikawaren arrain-hezurraren teknikaz baliaturik. Arazo horretan eragiten zituzten faktoreak apuntatu genituen gutako bakoitzak paper mutur batean. Gero, besteen aurrean aurkeztu eta arbelean zintzilikaturik utzi idatzitako horiek. Astiro-astiro, hainbat iritzi multzokatzeko aukera ikusten zen, eta era horretan kategoriak sortuz joan ginen. Azkenean, kategoria batean ala bestean kokatuta gelditu ziren taldekide guztion iritziak. Hari eskerrak, oinarrizko eskema bat eraiki genuen denon artean, arazoan eragiten duten hainbat eta hainbat faktore sailkatuz eta ordenatuz.

Detaille guztietan ez dugu sartu nahi, irakurlea informazioarekin ez itotzearren. Baina baimena eman bekigu txoko batera zertxobait lerratzeko. Izan ere, interesgarria deritzogu azken mintegi horretan zein egoera plazaratu zituzten irakasleek agertzeari. Honek beste ezerk baino hobeto ilustra baitezake zein egoera diren kezka-iturri irakasleentzat. Ebaluazio txosten batean halako informazioa baliagarria izan daitekeela iruditzen zaigu. Hona beraz:

- 1. Egoera: Zerikusia dauka erritmo kontuekin; gela taldeka jarri, lan bat eman; batzuk oso azkar bukatu (arinegi egin dutenaren sentsazioa) eta beste batzuk lanean jarraitzen dute. Giro desegokia/nahasia sortzen da (presioa batzuk besteei?). Ez dakit noiz eta nola esku hartu. Amorrazioa sentitzen dut; azkar bukatu dutenek arinegi ari direnaren sentsazioa baina noiz esku hartu asmatu ez.
- 2. Egoera: Ikerketan ari direnean, blokeoak edota okerrak ikusten direnean taldeetan, antsietate sentsazioa; denbora falta, iritsi ezinak, dinamika zuzenean apurtu (irtenbideak irakasleak eman)
- 3. Egoera: Talde bat ikusten duzunean lanean ari ez dela, despistatuta, beste betebeharrak batzuetan... Noiz sartu? Noiz esan, baina... zertan ari zarete? Jakin ez noiz esku hartu; arinegi ari direnaren sentsazioa ere. Batzuetan gehiegi sartzen naiz, beste batzuetan libreegi utzi... tresna falta, inpotentzia eta kezka sentsazioa.
- 4. Egoera: Lan bat aurkezteko epe-muga jakin bat edukita, egunero egindako lanaren jarraipena egiteko asmoa, epe hori errespetatua izan dadin. Egunero, egindako lanaren gainean balorazioa egiten zen bai irakasleak zein ikasleek; baina askotan ez zetozen bat. Hor zalantza sortzen da: noiz ari den nor zintzoki (ikasleen erantzunak zentzudunak dira baina egia ote?) Sentsazioa: zalantza.
- 5. Egoera: Talde batean lanean bi lider sortu eta euren arteko talkak sortzen direnean (adostasun falta...); adostasunez hartutako erabakietan galtzaile den liderrak gainontzekoen lana oztopatzen du; taldetik desbinkulatzen da... izaerak daukan garrantziaz konturatu... inpotentziaren sentsazioa.
- 6. Egoera: Ikasle baten aurreikuspenak ez ziren bete (lana aurkituko zuela berehala...), ikaslea etsita sentitzen zen, denbora galtzen ari zenaren sentsazioa... Inpotentziaren sentsazioa.
- 7. Egoera: Gaia ez kontrolatzea (ez materia bera, ezta talde kooperatiboaren dinamika ere). Sentsazioa: antsietatea, urduritasuna, kezka.
- 8. Egoera: Bide latza, ez soilik ikasleekin, lankideekin ere; komunikaziorako zailtasunak; horma baten kontra joko bazenu bezala. Kezkarik handiena, ez identifikatzea ikasleen espektatibak, helburuak.... Sentsazioa: kezka.

- 9. Egoera: Urduri jartzen nau erantzukizun faltak, ardura batzuk esleitu eta bakarren batek betetzen ez dituenan, erritmoa apurtu, dinamika moteldu, gatazka... askotan gertatzen den kontua da; aurrera ezin jarraitu... paperak galtzen ditut, haserretu, errieta eman eta, gero atzera egin behar... sentsazioa, haserrea.
- 10. Egoera: Proiektuetan, lan luzeetan egoera gatazkatsua sumatu, giro txarra taldeetan; ikasleek arazoa ezkutatu egiten dute; taldea apurtuta dago; nola azalerratu hori? Zer egin? Nola esku hartu? Sentsazioa: noraeza eta frustrazioa
- 11. Egoera: Norbaitek gehiegizko ardurak hartzen dituenak, taldeko lan-eza ezkutatzegatik. Ez da ikusten zenbateraino den batek ez dakiela delegatzen, zenbateraino batzuen utzikeria. Zer egin hor? Nola esku hartu? Nola detektatu hori? Zalantza sentsazioa.

Atal honekin bukatzeko, irakasleek mintegiak nola baloratu zuten agertu nahi genuke. Lehendabizi, euren asebetetze maila, eta bigarrenik, euren iritziak.

Galdera kuantitatiboak

- 1.- Lehenengo mintegiaz asebetetze maila. Batz bestekoa: 8,4
 - 2.- Bigarren mintegiaz asebetetze maila. Batz bestekoa: 8
 - 3.- Hirugarren mintegiaz asebetetze maila. Batz bestekoa: 8,6
 - 4.- Mintegietan eramandako metodologiaren egokitasuna. Batz bestekoa: 8,9
 - 5.- Instalazioen egokitasuna. Batz bestekoa: 8,9
- BATAZ BESTEKO OROKORRA: 8,5

Galdera kualitatiboak:

1.- Alderdi positiboak:

- Besteen kezka ezagutzea eta momentu honetan egiten ari diren proiektuak aztertzea.
- Beste ikastetxeetako irakasleekin gure esperientziak partitzeko aukera izatea, honek ematen/sortzen duen aberastasun guztiarekin.
- Dinamikak ezagutu ditugu, batzuk erabilgarriak.
- Aholkulariak jatorrak, inplikatuak; bizi egiten dute irakasten dutena.
- Elkarlana.
- Lasaitasunez hausnartzeko astia hartzea.
- Aholkulariak asmatu egiten dute konfiantzazko lan-giroa sortzen.
- Partaideen –ikastetxeko irakasleen- jarrera oso ona da, aportatzeko, jasotzeko...

2.- Alderdi negatiboak

- Egin duguna egin dugu, baina gure ikasleek nahiak ase ditugu? Beraien balorazioak ez ditugu jaso, aurkeztu, konpartitu.
- Gehiago nahi nuke, eta gutxi da.
- Denboraz mugatuak daude, ezinbestean, eta, beraz, diagnostikotik “tratamendurako” urratsa hartzerik ez da izan.

3.- Hobetzeko proposamenak

- Helburu zehatzagoak finkatu, mintegietan lortu beharrekoak.
- Ereduak behar ditugu.

- Bloga sortu eta materiala zintzilikatu (mintegietakoa, prestakuntzakoa, Unitate Didaktikoak...)

IKASGELETAN EGINDAKO ESPERIENTZIEN BALORAZIO OROKORRA (IRAKASLEEN IRITZIAK)

Irakasleek beteriko galdetegietatik beraietatik hartu ditugu ondoren datozen lerroak. Beraz, irakasleen iritzi zuzena ikusteko aukera duzue horretan. Hala ere, informazio ugariaren aurkezpena hobetzeko hainbat eragiketa egin ditugu, ustez ikuspegi didaktikoaren lagun izan daitezkeenak. Honako hauek zehazki:

- 1.- Irakasleek aukeratutako hizkuntza, bere horretan utzi dugu guk hona aldatzerakoan. Batzuetan, euskaraz; beste batzuetan, gaztelaniaz.
- 2.- Atal ezberdinetan zeuden iritzi gertukoak elkartu ditugu lerro bakarra osatzeko. Halakoetan, gramatikak eskatzen dituen aldaketak eragin ditugu testua irakurgarriagoa egiteko.
- 3.- Dagoeneko azalduta zeuden iritziak ez ditugu berriz idatzi beste irakasle batek antzeko zerbait adierazi duenean.
- 4.- Esaldiaren testuingurua ulergarriagoa eginarazteko, informazio gure ustez argigarria gehitu dugu tarteka parentesi artean.

Ohar hauek kontuan harturik, hemen dituzue zuzen-zuzenean irakasleen balorazioak eta iritziak.

1.- ESPERIENTZIA HONETATIK GELDITU ZAIGUN SENTSAZIO OROKORRA

4	Oso ona	II
3	Ona	IIIIIIIIIIII
2	Tartekoa	III
1	Txarra	
0	Oso txarra	

Guztira: 2,9 puntu (0-4 eskala batean)

2.- SENTSAZIO OROKORRAREN PUNTU NAGUSIAK

Esperientzia honetatik bereziki zera honekin gelditzen naiz...

- “Halako gehiago egitearen beharra. Partiduak jokatu behar dituzte, ez soilik entrenatu. Konpetenteak izan daitezen nahi badugu, ezagupen funtzionalak lor ditzaten nahi

badugu (eta hori omen gure lanaren helburu nagusia, curriculum dixit), egoera errealean aurrean jarri beharko ditugu, benetako problemen aurrean, bakarrik, taldeka esan nahi dut, baina irakasleak dena egin edo bideratua eskaini gabe, soilik “on demand” lagunduz, laguntza zehatza eskatzen dutenean. Ez dituzte lortuko lan kooperatiboak eskatzen dituen konpetentziak klasean indibidualki irakasleak diona entzun, apunteak hartu eta apunteak azterketarako ikasiz”.

- “Horrelako proiektu bakoitzak lantzen dituen gaitasun edo konpetentziak ondo identifikatu eta hauek sekuentzializatu egin behar ditugu, kontzeptuzko edukiekin (eta prozedurazkoekin ere bai, nola hala) egiten dugun bezala”.

- “Taldea dinamikan gustura sentitu dira, ikasle onek besteak behartu dituzte gauzak ondo egitera eta orokorrean hauek ere erantzun ona eman dute, eta eskertu dute era desberdin honetara problemak lantzea”.

- “Ikasleen artean izan den elkarlana eta talde giroa”.

- “Ikasleek aurkeztutako lanak ere txukunak izan dira eduki aldetik eta orokorrean gogotsu eta lan giroan aritu dira”.

- “Bizitza errealekin harremanetan jartzeko balio izan du proiektu honek, eta positibo eta guztiz aberasgarria da hori. Bakoitza bere zilbor hesteari begira egon beharrean, taldean erroto beharra hasi dira ikasten. Ikasleak gustura sentitu dira, baliagarri sentitu dira, helduago sentitu dira, eta, oro har, gora egin dute auto-estimuan”.

- “Proiektua beharrezkoa da eskolan lantzen ez dituzten hainbat gauza lantzen eta sentitzen dituztelako. Eskolan asistentzi arazoak dituzten ikasleak ez dute asistentzia arazorik izan proiektuan”.

- “Ikasle batzuen inplikazioa eta lan egiteko gogoia. Eskertu dute klase magistralez gain taldeko lanari denbora gehiago dedikatzea eta lana modu aktiboagoan egiteko aukera izatea”.

- “Se han combinado técnicas diferentes que iban desde la búsqueda de información, hasta la redacción y exposición oral de ideas, elaboración de un power point, toma de la decisión de la propuesta que se le tenía que hacer a la familia judía en relación con el lugar de residencia más conveniente. Todo esto ha implicado trabajar diferentes competencias. Mi actitud en las sesiones de trabajo ha variado, he intentado ser más cercana y aportar ideas para encauzar su forma de trabajar. Los alumnos en sus valoraciones lo han señalado como un aspecto positivo. Me ha costado mucho esfuerzo adaptarme a esta nueva forma de trabajar pero la considero de bastante utilidad. Tengo que aprender mucho todavía pero no dudo de la validez de la experiencia”.

- “Talde lanaren dinamikak ikaslea protagonista bihurtzen du”.
- “Talde kooperatiboen bidez edo taldeka lan eginez ikaslearen parte hartzea aktiboago eta lana esanguratsuagoa izan da, eta ondorioz ikasketa maila hobea edo aberatsagoa”.
- “Aurten sentazioa dut ikasleak inoiz baino prestatuagoak doazela praktiken aldira. Ikasleek izpiritu kritiko eta estilo propioa gara dezaten nik irakasle gisa dudana helburuetariko bat izaten da, eta aurten sentazioa dut hori lortu dugula”.
- “Ikasleak motibaturik ikusi ditut lanean eta lehiakortasun puntu batekin; lanak fintzeko eta lanean zintzo aritzeko balio izan duena. Beste unitate eta ebaluaziotan motibaziorik gabe eta alferkerian aritu diren ikasleak lanean aritu dira eta ez dira traba izan beste taldekideentzat eta beraz hau oso positiboa da”.
- “Esperientzia polita iruditu zait. Orain arte gelan egindakoa moldatu eta era desberdin batean egiteko kapaz izan gara. Horrek, ene ustez, ikasleen motibazioa eta haien arteko elkarrengana ahalbideratu du eta erantzukizuna eta parte hartzeko jarrerari bultzada eman diogu”.
- “Ikasleei ardurak emanez gero, erantzun egiten dute”.

Aurrerapenik handiena zera izan da...

- “Ikasleen lanari begira nik uste dut ekimenean zerbait aurreratu dutela, baina hori egiaztatzeko arazo baten ebazpena eskatzen duen beste horrelako proiektu bat aurkeztu beharko litzaieke. Konpetentzia espezifikotan ere eragin positiboa izan du ekimen horrek. Hala, esaterako, kontzeptuzko edukiei dagokienez, ekuazioaren ulermena eta erabilera (hori zen eta helburu nagusia edukietan) beste urtetan baino sakonagoa izan dela adierazten dute azterketaren emaitzek”.
- “Nik egindako aurrerapenik nabarmenena konfiantzan izan da. Ohi bezala, esperientziak ematen du konfiantza, baina oraingoan are gehiago, aholkularitza izateak pista dezente eman baitizkit tankera honetako beste proiektuei ekiteko”.
- “Askorentzat beraien bizitzan lehen aldia da hau guztia sentitzen dutela, hau da, ezinbestekoak direla taldeko puzzle handi horretan”.
- “Ikasleek normalean irakasleak emandako apunteak bakarrik erabiltzen dituzte gaia lantzeko, eta oraingoan informazio hau jasotzeko eta modu kritiko batean irakurtzeko beste informazio iturri batzuk erabili ahal izan dituzte. Lan honek gai berdina ikuspuntu desberdinetatik lantzeko aukera izan dute eta beraien artean eztabaidatzeko aukera izan dute”.

- “Elkarlanean aritzeko, elkarri lagunduz, aurrera pausu bat izan da. Egoera berriari aurre egiteko orduan, orokorrean ahalegina bateratua izan da”.
- “Ikasleak orokorrean (eta beraiek azaldutakoa kontuan hartuz) gauza hauetaz jabetu dira: 1) gurasoekin harremana gertutik lantzearen garrantziaz, 2) entzute aktiboaren garrantziaz, 3) elkarrizketak aldeztatik ondo prestatu beharraz, 4) norbere burua hezitzaile bezala prestatu beharraz”.
- “Ikasleen jarrera taldean kooperazioan aritzeko. Orokorrean, talde sentipena izan dute, nahiz eta honetan ere asko hobetu behar”.
- “Lortzen da ikasleek gehiago jakitea eta taldeko tentsioa jaiste”.
- “Jarduera mekanikoetan egin dute aurrerapenik handiena”.

Zailtasunik handiena zera izan da...

- “Esperientzia falta nire aldetik konpetentziak lantzeko prozeduretan. Seguru asko ez ditut prozedura horiek ondo gidatu, ez ditut eredu egokiak eskaini”.
- “Denboraren presioa. Orduak aurrera joaten ikustean, eta ebaluazioa bukatzeko falta dena eta lantzeko falta dena..., betiko ezinegona. Baina onartua nuen hasieratik hala izango zela”.
- “Elkar entzutea kostatu egiten zaie ikasleei eta askotan ez dute ulertzen besteek esandakoa, baina ez diote garrantzirik ematen”.
- “Tailerreko lanak ez zuen amaierako helburu erakargaririk. Lana egin duten arren ez dute osotasunaren kontzientzia hartu eta uneoro esan behar izan zaie zer zen egin beharrekoa. Ikasleei inizatiba falta izan zaie tailerrean. Egin beharreko lanak “agindu” kutsua zuenez, eta azken emaitzaren irudikapenik ez zuten, batzuetan liskarrak sortu dira”.
- “Ohitura faltak bultzaturik, seguru asko, ikasle talde batzuek ez dute ulertu zer garrantzitsua den norbere burua antolatzea, batez ere beste pertsona batzuekin lan egin behar denean. Ondorioz, talde batzuek denbora asko galdu dute, edo ez dute behar bezala aprobeatu”.
- “Ebaluazioa eta talde dinamika ona mantentzea. Adibidez, nik beraien fitxetan zegoen informazioa puntuatzerakoan. Egia esan beste modu batera jardunda ere puntu zailenak hauexek izaten dira askotan”.
- “Zentratzen denbora asko kostatu zaigula esango nuke. Nolabait formazio teorikoan, gelako lana ezin irudikaturik ibili garelako luzaroan. Unitate didaktikoa prestatzeko zenbait eredu ikusi ditugu, eta nire uste apalean, lan izugarria eskatzen dutenak dira, konplexuegiak edo. Badakit zerbait egin behar dela eta alternatibak lantzen ere ez naiz jardun, baina nik aurrera egiteko oztopo bezala sentitu ditut, ezin nituelako prestatu”.

- “Kide desberdinen inplikazio maila lortzea. Batzuetan, haien arteko desadostasunak bideratzea guztiok eragile eta erantzule izateko”.
- “Modu honek irakasleoi askoz ere denbora gehiago eskatzen digu. Ez gara seguru-seguruak sentitzen. Ikasleei dagokionez, denak maila berean jarduteak zera dakar berekin: alperrak direnek lan gutxiago egiten dute, errazago eskakeatzen dira”.
- “Hay bastantes niños que no disfrutan por tener que verse sujetos al ritmo de otros”.
- “Tal como lo hemos planteado observo un exceso de cargos y normas para funcionar en los grupos. Esto produce bastante rigidez en los grupos. Los alumnos necesitan “oxigenarse””.
- “Nuestros alumnos en concreto, entre 5 y 8 años, no están aún preparados para descentrarse de uno mismo, ponerse en el lugar del otro, para entender que todos pueden aportar en la misma medida”.

Harrigarria suertatu zait...

- “Harritu ninduen nolako erresistentzia erakutsi zuten ikasleek problema aurkeztu eta aztertzen hasteko eskatu nienean. Haiek ere harritu ziren nire eskaerarekin eta ezinean bezala ibili ziren hasieran”.
- “Beren harrera ona hasieratik. Talde lanaren baitan notaren zati bat egongo zela esan genien, eta horrek arazoak ekarriko zituela uste nuen nik, baina hasieran zergatiak esplikatzen ondoren besterik gabe onartu zuten eta aurrera egin zuten”.
- “ Ez ginen oso ziur Britainiara joaterakoan nolako erantzukizunez jokatu zuten ikasleek. Ez genuen espero, inondik inora, gauzak irten ziren bezain ongi irtengo zirenik. Erantzukizun handiz jokatu dute bertan”.
- “Zenbait taldetan sortu den lan giro ona. Orain pentsatzen hasita arraroa da lan giro onak harritu izana, nolabait emaitza txarrak espero genituela ematen du eta”.
- “Harrigarria suertatu zait hasieran oso beldur nintzela proiektua egin behar genuela jakin genuenean, baina azkenean uste baino errazagoa egin zaidala eta oso gustura bukatu dudala”.
- “Ez nuen espero bukaeran halako produktu onak aurkeztuko zituztela”.
- “Harrigarria iruditu zait ikasleek erakutsitako zintzotasuna. Izan ere, talde lana baloratzeko erabilitako tresna, semaforoa, erabili dugunean, oso emaitza errealak eman dituzte eta nik behatutakoarekin bat zetozenak”.
- “Ebaluazioa egin dugunean beraiek izan duten autokritika eta lankideei eginiko balorazioak, horrexek harritu nau gehiena. Nahiko zintzoak izan dira. Era berean, talde ebaluazioa egin dutenean hobetzekoak nahiko ondo islatu dituzte”.

3.- ALDERDI POSITIBOAK ATALKA

Motibazioa

- “Aukeratutako egoera problematikoa motibagarria suertatu da ikasleentzat; benetan saiatu dira ebazten. Asmatze horretan, seguru asko, zerikusia izan du arazoa beren bizitzatik gertu egoteak. Arazoaren zailtasun mailarekin asmatu izanak ere eragina izango zuen, noski, zeren nahiko irekia izan arren, hain zaila ere ez baitzaie gertatu”.

- “Ikasle eta irakasleen hasierako ilusioa, motibazioa. Nobedadea den heinean, interesa eta gogoarekin aritu dira ikasleak”.

- “Unitateari dokumental batekin hasera ematea oso ongi baloratzen dut. Super Size Me dokumentala gainera oso egokia iruditu zait, alde batetik nutrizioarekin lotutako hainbat kontzeptu asimilatzen hasteko egokia delako eta bestetik 3 DBH-ko ikasleentzat Mc Donald´s eta honelakoak ezagunak izanik, dokumentala gogoz jarraitu dute”.

- “Ikasleen parte hartze eta inplikazioa azpimarratu behar da. Denona izan ez bada ere, gehiago batena. Gaia beraien interesekoa zen eta lan egiteko modua dinamiko eta aktiboagoa iruditu zaie. Aldaketa eskertu dute”.

- “Bretainiako irteera, proiektuaren ekintza nagusia alegia, zoragarria izan da. Bretainiako taldea kide arrotzez osatua egon arren, oso talde kohesionatua izan da lehen egunetik. Lehen egunetik ikasle taldeak bat egin du Bretainiako taldearekin oro har. Horrek ekarri du berdintasuneko trataera bat denean; heldutasunean, lanean, erantzukizunetan, parrandan...Ikasleak egoera guztietan helduen parean egote honek, elikatu du eta indartu du taldearen sena, guztiek bat eginez. Ikasleez gain Bretainiako taldea helduez osatua zegoen (22-65 adin tartea) eta zoragarria izan da ikustea adin guztietako lagunekin zein ondo sentitu diren eta zein lagun onak egin dituzten”.

- “Hasierako motibazioa pizteko jarduerak garrantzitsuak izan dira, bereziki NASAren jokoa. Lanean parte hartze aktiboa izateko motibazioa oso garrantzitsua dela konturatuta NASAren jokoa jarduera interesgarria eta, ikasleen hitzetan, dibertigarria izan da. Ikasleak lan desberdin baten aurrean geundela ohartarazteko eta maila handi batean motibatzeke balio izan du”.

- “El planteamiento del caso les ha resultado novedoso y ha suscitado más interés en ellos. La mera presentación del caso creaba cierto interés. No se trataba exclusivamente de recoger información e interpretarla sino que esas tareas estaban encaminadas a dar ellos mismos una solución al caso planteado. Los alumnos adoptaban un protagonismo que en los otros proyectos no tuvieron. Se ha producido un cierto clima de trabajo y he observado que en tres de los cuatro grupos se producía un intercambio de impresiones sobre las dudas que suscitaba el tema”.

- “Talde lanerako giro aproposa egon da: ikasleak motibaturik egon dira eta gaiarekin zerikusia duten kezkek eta jakin mina izan dituzte. Taldekideen artean lanerako jarrera eta taldeen arteko elkar laguntza sumatu dut ere”.

- “Ikasleen motibazioa piztea lortu dugu, bai eta haiek hausnarketa sakonak eginaraztea ere. Hori horrela gertatu da, besteak beste, planifikazioan aski denbora eskainia genuelako egin beharreko ekintzak aurrera eramateko: hala nola, hitzaldia ematera etorri zen hezitzaileari egin beharreko galderak prestatzeko, entzute aktiboaren ezaugarriak ateratzeko eta praktikatzeko, edo gidoiak osatzeko eta rol-playing-ak aurrera eramateko eta ondorengo hausnarketak egiteko”.

- “Ikaslea motibazioa pizten lagundu du euren egin beharrekoa ongi planifikatuta eta bideratuta egoteak. Hala, dinamika erraza izan da eta erakargarria (banaka, binaka, taldean). Orain arte eramandako metodologiarekin konparatuz askoz parte hartzaileagoa”.

Kideen arteko harremana

- “Talde-lana edo talde barruko kolaborazioa ona izan da talde gehienetan. Ikasleen arteko harremana nahiko ona delako batetik eta bestetik irakasleak egindako taldeak izateak ere lagundu duela, izan ere kontutan hartu nuen irizpideetako bat partaideen arteko enfrontamenduak saihestea izan zen”.

- “Talde lanean aritzeko lortu duten auto-kontrola azpimarratu behar da, bereziki itsasoan (itsasoratzea eskatzen zuen gure proiektuak: Marinel Gazteak). Itsasoak taldean aritzeko beharra sentitu eta barnarazten dizu. Horren aurrean, bakarrik geratzen zaizu taldekide bezala aritzea taldearekin batera, honek norberari eskatzen dion auto-kontrolarekin. Aipa daitezkeen adibideak: etengabeko arreta, nekatuta egon arren aurrera egin beharra taldeak aurrera jarraitzen duen bitartean, aginduekin ados ez egon arren aginduak bete behar izatea... Itsasoak sortutako egoera hauek onuragarriak izan dira tailerrerako. Tailerreko lana oso atsegina izan ez bada ere, taldean aritzeko gaitasuna erakutsi dute eta lana aurrera ateratzea lortu dute”.

- “Talde batzuek oso ondo funtzionatu dute, elkarlana aurrera eramateko orduan aurretik ezarritako irizpideak ondo bete dituzte. Talde batzuk ondo funtzionatzearen arrazoia zein izan den ez dakit, seguru asko, bertako kideen ezaugarriei esker izan da, guk proposatutako metodologia aurrera eramateko heldutasuna eta erantzukizuna nahikoa izan dutela. Beste kasu batzuetan, ezaugarri horien falta nabarmena izan da”.

- “Garrantzi handia izan du talde helburua ongi finkatzeak, eta, batez ere, konpromiso pertsonalak hartzeak talde funtzionamendua ongi antolatzeak. Konpromiso pertsonalak hartu izanak ikasleen inplikazio zuzena ekarri du. Konpromisoa hartu eta izenpetzea bulkada bat izan da aurrean genuen talde lan kooperatiboan indarrez eta gogoz murgiltzeko”.

- “Taldeen kohesioan eta talde sentimenduan aurrera egiten zera honek lagundu zigun: hasieran, taldeak osatzeko aldi horretan, kooperazio jolas bat egin izanak. Horrez gain “el agua y el vino” pasadizoa irakurri eta hausnarketarako parada izan genuen. Horren ostean talde bakoitzak bere logoa definitu behar izan zuen”.

- “Ikasleen arteko elkarreragina areagotu egin da. Gure proiektuak ahalbideratu du euren autonomia, parte hartzea eta ahozko hizkuntza informala lantzea, bereziki”.

- “Gutxi batzuk prest agertu dira besteei laguntzeko”.
- “Umeak gauza garrantzitsu batez konturatu dira, beraiek bakarrik ikusi dute besteen txandak errespetatzea ezinbestekoa dela ulertzeko. Era berean, umeek ikusi dute guztion laguntza eta parte hartzearekin emaitza hobekak lortzen direla”.
- “El reparto de cargos dentro del equipo con sus respectivas responsabilidades es otro de los aspectos que han aceptado gratamente, casi viendo ellos mismos la necesidad porque el trabajo es más controlado y tienden a recordarse las tareas y a hacerlas cumplir, pero son poco constantes en eso”.

Konpetentzia espezifikokoak

- “Edukiari dagokionez, hainbat taldek egindako lana oso ondo dago, egin beharrekoa ondo ulertu dute eta zeuzkaten baliabideak ondo erabili dituzte. Adibidez, elkarrizketak erabiltzerakoan elkarren artean informazioa konpartitu dute, baita gela eta talde desberdinen artean ere. Orain arte taldeko lanetan talde bakoitzak bere informazioa zeukan, eta hortaz baliatzen zen lana egiteko; oraingoan ikasle bakoitzak lorturiko informazioa denontzako izango zela argi zegoen hasieratik, eta honek lana aurrera eramateko aukerak erraztu egin ditu”.
- “Zumaiako Algorri hondartzara egindako irteera. Taldeko lanaren helburu espezifikoekin zuzenean loturik dago Zumaiako hondartzara egin genuen irteera hau. Ingurune naturalean eta bioaniztasun handiko marearteko ekosistemaren azterketa hau funtsezkoa izan da ikasleriaren gehiago jakin nahia pizteko”.
- “Adituek taldekideei aurkezpenearen egitearen ideia ona da. Aurkezpenean umeek egindako ekarpena, jabetu diren ala ez jakiteko kontzeptu maparen galderak egin dizkie taldekideei”.
- “Los alumnos han conseguido trabajar de forma cooperativa cuando la propuesta de trabajo era corta en el tiempo y fácil en el logro de los objetivos (alumnos entre 5 y 8 años)”.

Ebaluazioa

- “Lan saio kopurua ere ongi kalkulatu izan da eta ikasleei asko gustatu zaie beraien ikaskideak ebaluatzea”.
- “Taldea lana neurtzeko semaforoarena egitea (berdea: ongi, gorria: gaizki, eta horia: zalantzarikoa) ere oso positiboki baloratzen dute. Ikasleek taldeari jarritako semaforoa eta nik haiei jarritako, orokorrean bat zetozen eta ikasleek zintzotasunean maila handia erakutsi dute”.
- “Hausnarketa saioak oso baliagarriak suertatu dira kideen artean egiazko loturak sortzeko. Egoera berriak izateaz gain, sentimenduak asko harrotzen dituzten gertakariak bizi izan dira (segurtasun eza, beldurra...). Lagungarria izan da leku eta momentu

zehatz bat ematea sortzen ziren gertaera ezberdinez hitz egiteko. Hitz egiteko aukerak beraien sentimenduak ulertzeko balio izan die. Itsasoko eta tailerreko gertaerak baliatu dira sentimenduak ulertzeko”.

- “Azken proiektuaren hasieran beraiek autoebaluazioa eta koebaluazioa egin beharko dutela azaltzeak eta horren barruan beraien arteko elkarlanaren alderdi ezberdinak bereziki baloratuko dituztela argitzea oso lagungarri dela esango nuke (elkarrekin bizi edo elkarrekin lan egin helburuari dagokionez)”.

Koordinazioa

- “Moduluen arteko transferentzia eman da: lana planifikatzeko Gantt Proiekt metodologia erabili behar izan dute eta tresna hori informatikako moduluan ikasi dute ondoren Jolasaren moduluan aplikatzeko. Didaktikako moduluko edukiak Jolasaren edukien osagarri izan dira. Moduluetakoa irakasleen arteko elkar laguntza eta edukien artean lotura sendoa nabaritu dut”.

4.- ERDI BIDEAN EDO KILI-KOLO GELDITU DIREN ALDERDIAK ATALKA

Kideen arteko harremana

- “Gure helburuetako bat zen ikasleak beren burua antolatzen trebatzea. Horretarako, ikasleek beraiek taldearen antolaketa prestatu behar zuten, kronograma moduko bat osatuz. Talde askok ez dute lan honen erabilgarritasuna amaiera arte ikusi, eta ondorioz denbora asko galdu dute eta emaitza ez da izan zitekeen bezain ona izan. Seguru asko, guk ez diogu behar bezainbeste ekin kontu honi proiektuan zehar”.

- “Ikasle batzuen inplikazio maila. Hainbat kasutan ikasleak ez dira gai izan taldean behar bezala parte hartzeko, eta horrek besteei arazoak ekarri dizkie. Aurretik egindako lanetan hartutako ohiturak eraginda edo, ikasle batzuen jarrera bere taldekideen lanaz baliatzea izan da. Egoera konpondu nahian, behin eta berriro hitz egitearen poderioz, bukaerarako maila handi batean bideratzea lortu genuen, baina ez guztiz”.

- “Talde barneko antolamendua. Taldeen eginkizuna antolatzean, agian, aldeztu aurretik zehaztu behar genituzkeen taldekide bakoitzaren eginbeharrak, edo hobeto planifikatu eginbeharren banaketa”.

- “Aurkezpenetan zarata handia egon da. Kosta egiten zaie batzuei besteen ikuspegia entzutea eta onartzea”.

- “Sabendo las diferencias de ritmo que hay entre alumnos cuando comenzamos curso de manera “tradicional”, entre ponte bien y estate quieto, este inicio no ha colaborado en algunos aspectos con cierto tipo de alumnos, que al estar en grupo reducido se distraía con facilidad, no se centraba en el trabajo, y retrasaba al resto. Este tipo de alumno no

ha interiorizado las pautas del trabajo cooperativo, simplemente se han dejado llevar por los líderes natos”.

Konpetentzia espezifikoak

- “Ikasleak ez dira ongi egokitu ariketak egiteko irakasleak emaniko tartera. Adinaren ezaugarriak tarteko (DBH1 eta 2) prestatu gabe daude denbora estuan lanari heltzeko”.

- “Proiektuaren bigarren zatian, taldeak sakabanatuagoak ibili dira lanari dagokionez, batzuetan noraezean, emankortasun gutxiagorekin. Arrazoi nagusia izan da lana ez dela lehenengo fasean bezain bideratua egon (txantiloirik ez, protokolorik ez...)”.

- “Aurkezpenak egiteko power point programa bat erabiltzeko eskatu nien, baina ez ziren gauza izan programa behar bezala erabiltzeko. Ondorioz emaitzak kaxkar samarrak izan ziren. Errua nirea izan zen alde zurretik programa ez lantzeagatik”.

- “Creo que falla la transmisión de la información trabajada por cada grupo. En primer lugar porque las exposiciones no resultan todo lo claro que debieran, a eso hay que añadir que cada uno está muy pendiente de su propia exposición y no presta la atención debida a sus compañeros”.

- “Las expectativas mías quedan lejos de las suyas; ellos se conforman con una información que a mí me resulta bastante pobre. No tengo muy claro si esas expectativas mías resultan demasiado ambiciosas para chicos de estas edades, y particularmente de un grupo como este”.

- “El cuaderno de aprendizaje no refleja lo que es todo el proceso de aprendizaje. Sienten el cuaderno de aprendizaje como algo que tiene que ver más con la burocracia que con la efectividad. Creo que yo mismo no he profundizado suficiente en el valor de este instrumento”.

- “Oraindik ez dut garbi ikusten eduki espezifikoen eta orokorren arteko uztarketa. Momentuz, diseinuak asko laguntzen du proiektuaren panoramika orokorra edukitzeko, hala eta guztiz ere, uztarketa edo loturak egitea kostatzen da.”

- “Eduki batzuk sakondu barik geratzen dira”.

Ebaluazioa

- “Egunkaria betetzea. Zergatik? Agian, ohitura faltagatik eta ikasleen idazteko alferkeri orokorrenagatik. Zitzuten hutsuneak agerian uzteko saiotoxo bat egin genuen arren, oso talde gutxitan nabaritu zen hobekuntza. Agian eredu zehatzen bat ere falta izan zitzaion”.

- “Ikasleei eskatutako informazioa asko, adibidez fitxen bidez edo koadernoaren bidez eskatutakoa, ez dugu jakin nola erabili, balorazioa oso subjektiboa zelako. Informazioa eskatu baino lehen zehaztu beharko genuke informazio hori nola erabiliko dugun ebaluatzeko. Sistemak gainera erraza behar du izan, ezin baitugu denbora gehiegi ere erabili ebaluazioan”.

- “Autoebaluazioa. Autoebaluazioan, beraien burua ebaluatzeko momentuan eta azken notan eragina izango zuela jakitean, ez dute benetako jarrera kontuan izan. Autokritika gutxi izan dute eta nota “puztu” dutela esango genuke”.
- “Behaketak protagonismo gutxi izan du ebaluazioan, ez baitiogu horri era sistematikoan ekin”.
- “Zaila egiten zait talde lanaren bakarkako ebaluazioa egitea. Zaila egiten zait ikasle bakoitzaren behaketa eta jarraipena egitea. Ez nago ohituta talde lanean bakarkako nota jartzen, ez eta bakarkako lanaren behaketa egiten ere. Zeri begiratu horrelakoetan? Zertan jarri arreta? Zein adierazle hartu behar ditugu kontuan talde lanean behar bezala ari diren edo ez ebaluatzeko?”.
- “Ebaluazioa egiterakoan, alde zurretik jarritako irizpideak bete dira, baina ez dugu hausnarketa tresna bezala erabili. Hau da: ikasleek autoebaluazioa eta koebaluazioa egiten dute, bai eta taldeko ebaluazioa ere, baina ez ditugu hortik ondorioz atera”.

5.- ALDERDI NEGATIBOAK ATALKA

Kideen arteko harremana

- “Ikasle batzuen inplikazioa proiektuan eta beren taldeko lanean. Hau ez da ez berria ezta harritzekoa ere. Ikasle batzuk (hiru bat gela batean, pare bat bestean) ikasturte hasieratik, ez dituzte klaseak ia jarraitzen, askotan ez dute entzuten nik edo beste ikasle batek esaten duena, ez dute ia ezer egiten. Eta proiektuarekin berdin. Gainera proiektuak hausnarketa eta sormen ahalegin berezia eskatzen zuen: ez daude inondik ere prest halakorik egiteko. Zergatia, nik uste, alferkeri erabat orokorra dela, baita mentala ere”.
- “Taldekide batzuk ez dira asko inplikatu. Arrazoi bat izan daiteke arduren banaketan egindako hutsa. Askotan beti-betikoek hartzen dute parte. Taldeekin hitz egin dut, baina gutxi horiek gehiago inplikatzeko ez dut lortu”.

Konpetentzia espezifikokoak

- “Konpromisoak datekin entregatzeko. Talde batzuk ez dute serio hartu data batzuetan entregatu behar zutena. Egunkaria entregatu behar zutela jakin arren, ez zuten ia betetzen, edo etxean ahazten zuten. Berdin Excel programarekin (gaixo zegoen batek zeukan bere etxeko ordenagailuan, eta ez zien besteei bidali) edo bukaeran egin beharreko s/t grafikoarekin. Ez dute heldutasunik erakutsi seriotasunez jokatzeko. Ez dira larritu epea ez betetzeagatik”.
- “Problema batzuk ebazteko irakaslearen laguntza behar izan dute. Baina akats hori guri egotzi behar zaigu, ez baikenuen ongi neurtu arazoan zailtasun maila altua”.

- “Problemei eskaintako denbora motzegia gertatu da. Berez bi problema egitea programatua genuen saio bakoitzean, baina ezinezkoa zen, oso estresatuak ibiltzen zirelan guztia behar bezala egin ahal izateko”.
- “Bukaerako produktu askoren kalitate eskasa eduki mailan. Sorpresa handi samarra izan da zenbait taldek bukaeran aurkeztu duten txosten idatzi, ahozko aurkezpen eta ikaskideentzako galdeketen kalitate eskasa. Behar bada jarreretan egon gara zentratuta bereziki eta ez ditugu behar bezala landu helburu espezifikoak. Ikasleen hitzetan “aditu bilakatu dira landu duten atalean, baina besteen ezagutzan ez dute ia aurrerapenik nabaritu, ez dira jakitun sentitzen”. Hurrengorako errebisio bat behar du honek”.
- “Egindako planifikazioa eta denboraren kudeaketa nahiko estu egon da. Oso erritmo desberdinei erantzuteko kudeaketa malguagoa beharko genuke”.
- “Falta izan zaigu saio edo atal bakoitzaren bukaeran talde bakoitzak egindakoa besteekin konpartitzea eta erkatzea. Egindakoa aberastuko zukeen honek”.
- “Saio batetik bestera denbora tarte handia egoteak moteldu du erritmoa”.
- “Bakarka lan egiten emaitza onak dauzkaten umeei, asko kostatzen zaie era honetan lan egitea, alde batetik gustatu egiten zaielako burua besteen gainetik ateratzea, eta beste aldetik, itzaroten egon behar direlako eta aspertu egiten dira”.
- “Taldeetan eta gelan, umeen mailaren arteko desberdintasunak txikiak badira, erraztu egiten du lan egiteko era honek, baina desberdintasunak gero eta handiagoak izan, orduan eta zailtasun handiagoak agertzen dira”.

Ebaluazioa

- “Hausnarketa saioak. Oso hausnarketa pobreak egin dituzte. Bi aldiz eskatu zaie: Excel-eko programa burutu ondoren, taldeka eta idatziz, eta bukaeran, proiektua bukatutakoan, indibidualki eta ahoz, talde osoarekin egindako saioan. Biak oso eskasak suertatu dira. Azaleko bi gauza orokor besterik ez dute esan, edo ez dute erantzun ere egin, salbuespen pare bat kenduta. Ez dakit zergatik izan den. Azkenekoan “nekatuak” ziruditen jada proiektuarekin, bukatuta zegoela, beste zerbaitera pasatzeko gogoz edo (hori gaurko gazteriaren ezaugarri orokorra litzateke, etengabe estimulua aldatu beharra). Nik mesedez eskatu banien ere hausnartu eta zerbait aportatzeko, kanpoko ebaluazio bat egingo zelako eta zerbait aurkeztu beharko nuelako, erantzun eskasa izan zen, baita proiektuan lanean gustura eta ahaleginduz aritu diren ikasleen aldetik ere. Horrek aditzera ematen du nolabaiteko ezintasuna horrelako hausnarketa prozesuak egiteko (eta ohitura falta, noski), ikasle horiek ez baitute utzikeriaz jokatu proiektuan zehar. Seguru asko ereduak aurretik eskaintzea lagungarri suertatuko zitzairen. Dena dela, dezepzioa izan da niretzat, gehiago espero nuen”.
- “Ikasleek beren taldekideez egiten zuten balorazioa ez zen oso zintzoa. Jakin bazekiten balorazio hori kontuan hartuko genuela batetik, eta bestetik taldekidea ondoan duzula berari buruzko kritika egitea oso gogorra egiten zaie”.

- “Eguneroko koadernoia bete beharra. Talde batzuei neketsua egin zaie, ez dute behar bezala bete, behin baino gehiagotan taldeko idazkariaren esku utzi dute inongo ekarpenik egin gabe. Hurrengorako sinplifikatu beharra ikusten dugu”.

6.- IKASKUNTZA KOOPERATIBOAREN ILDOTIK JARRAITZEKO GOGOIA

4	Ikaragarri	II
3	Bai	IIIIIIIIIIIIIIIIIIII
2	Tarteko	II
1	Gutxi	I
0	Batere ez	

Guztira: 2,9 puntu (0-4 eskala batean)

7.- JARDUNA HOBETZEKO IDEIAK ATALKA.

Motibazioa

- “Estimulazioa piztearren, egoeraren esperimendazioari heldu azterketa teorikoetan murgildu baino lehen”.
- “Taldea bakoitzari problema desberdin bat eskaini aurkezpena interesgarriagoa gerta dadin”.
- “Taldea osoarekin itsasora egun bateko irteera antolatzea faltako litzaiguke. Proiektua borobiltzeko, zikloa ongi ixteko eta zentzua hobeto ulertzeko lagungarri izan liteke ekintza hau”.

Ikasleen arteko harremana

- “Rol-playing teknika aplikatzerakoan, euren kasa utzi beharrean neronek gehiago finkatu ildo batzuk, horrela rol-playing-ak biziagoak eta pittin bat zailagoak gerta daitezten”.
- “Kideen betebeharrak alde aurretik definitu”.

Konpetentzia espezifikokoak

- “Ikasleek bete beharreko fitxek ezin dute oso konplikatuak izan. Errazte aldera egin beharko genuke”.
- “Arazo zehatzen aurrean (Excel-a ez dabil, eta akatsa identifikatu behar da, adibidez) talde batekin lan egin nik besteen aurrean, problema konpontzeko prozeduraren urratsak nik markatuz, eregu gisa. Gero utzi beraiek beren kasa lan egiten”.

- “Helburua sinplifikatu, antolaketa erraztu eta ikasleei hasieratik argiago adierazi zeintzuk diren gure helburuak”.
- “Taldeko koaderno eta egunerokoa sinplifikatu”.
- “Denbora-beharrak ongi aurreikusi, diseinu fasetik hasita, eta ondoren ongi kudeatu”.
- “Denboraren kudeaketa malguagoa”
- “Ezagutzak erkatzeko denbora erabili”.

Ebaluazioa

- “Egunkaria betetzeko eredia eskaini eta indar gehiago egin bete dezaten”.
- “Txosten idatziak egiteko ereduak eskaini”.
- “Hausnarketa saioetan zer eskatzen diedan uler dezaten ereduren bat eskaini”.
- “Bi minutuko balantze azkarrak egin, sistematikoki eta askotan: Zer ikasi duzu aurreko ordu erdian? Zein zalantza geratu zaizkizu? Ez bakarrik gaiari begira, baita prozedura edo aldarteaz ere galdetu; atzera begira bezala, aurrera begira ere bai (zer beharko nuke hurrengo ordu erdian?)”.
- “Bukaerarako utzi gabe, lehen ebaluaziotik hasi beharko genuke, denbora gehiago izan dezaten ikasleek lan mota honetara ohitzeko”.
- “Autoebaluazio eta koebaluazioaren garrantzia azpimarratu”.
- “Ikasleen ekarpen indibidualak hobeto neurtzeko beharra”.
- “Ikasleek portafolio moduko bat osatzea”.

IKASGELETAN EGINDAKO ESPERIENTZIEN BALORAZIO OROKORRA (IKASLEEN IRITZIAK)

Lehendik ere esana genuen ikasleen iritzien atala ez dela guk diseinatu bezala joan. Izan ere, ikasleen iritziak jasotzeko aurkeztu genuen prozedura ezin izan da kasurik gehienetan burutu. Bi kasutan soilik aplikatu da prozedura bere osotasunean. Eta datuek, egia esan, ikasle guzti-guztien ikuspegi orokorra emateko balio ez badute ere, esku artean dugun informazio honen interesa kontutan hartuz ez bazterrean utzi nahi.

1. PROIEKTUA

a) Helburu nagusia

“Aste hauetan nire helburu nagusia zera izan da: zuek sormenez problema bati aurre egitea, etsi gabe eta taldeka, elkar lagunduz, ideiak elkar konpartituz”. Zeuen ustez lortu al dugu hori? Zein da zeuen balorazioa?”

DBH 4: A-C taldeak

Ona: 12

Tartekoa: 5

Txarra: 1

- Talde lana egokia da, lana banatzeko.
- Taldean egoteak laguntzen du problema ebatzen, errazten du.

DBH 4: B taldea

Ona: 7

Tartekoa: 6

Txarra: 1

- Denek lortu dute helburua, azkenean, problema ulertu eta ebatzea..
- Taldeko partaideren batek oztopatu egin du taldeko martxa (tartekoa)
- Komunikazioan ez dute asmatu, ohitura faltagatik, agian.
- Batek dio ez duela ezer egin, horregatik txarra.

b) Prozedura

“Aurrekoa lortzeko, banakako hausnarketa bultzatzen saiatu naiz, eta gero norberaren ideiak konpartitzeko prozedura proposatu dizuet”. Prozedura horrek lagundu al digu? Zein da zeuen balorazioa?”

DBH 4: A-C taldeak

Ona: 7

Tartekoa: 9

Txarra: 2

- Prozedura berria, arraroa egin da.
- Artifiziala egiten zen, “naturalki” hitz egitea hobe da.

DBH 4: B taldea

Ona: 8

Tartekoa: 4

Txarra: 2

- Goiko pistan egindako saio praktikoa positiboa, arazoa hobeto ulertzen lagundu.
- Beste batek kontrako iritzia, ez zen beharrezkoa saio hori.
- Prozedurak pentsatzea eskatzen zuen, eta hori “ez zaio inori gustatzen”.
- Taldeka pentsatzea hobe da, bati bururatzen ez zaioa beste bati bururatzen baitzaio, elkarrekin laguntzen dira.

c) Jokaera

“Nire jokaera nagusia zera izan da: zeuek zeuen kasa utzi zaituztet, ikusteko ea asmatzen zenuten, eta nik emandako laguntza neurtu egin dut, soilik galdera zehatzak erantzunez, detaile teknikoak, nolabait esanda, baina soluzioak eman gabe”. Zer iruditu zaiuzue jokaera hori? Zein da zeuen balorazioa?”

DBH 4: A-C taldeak

Ona: 9

Tartekoa: 7

Txarra: 2

- Ondo dago bakarrik uztea pentsa arazteko, horrela ikasten da problemak ebazten.
- Zaila egiten zen aurrera egitea, tratatuz gero.

DBH 4: B taldea

Ona: 10

Tartekoa: 2

Txarra: 2

- Pistak ematea ondo dago, informazio juxtua aurrera jarraitu ahal izateko.
- Ekuazioa hasieratik landua ez izatea, eta haren beharra sortutakoan lantzea, egokia, horrela pentsatu behar izan dutelako.

d) Ebaluazioa

“Kalifikazioa hau da: 30 puntutik, 10 puntu taldeko lana (semaforoak, zeuenak eta nirea, nire behaketa, egunkaria), 10 puntu azterketa banakakoa, 6 puntu Excela, 4 puntu grafikoa. Beraz, notaren heren bat dago lotuta aipaturiko helburuarekin”. Zein da zeuen balorazioa honi buruz?”

DBH 4: A-C taldeak

Ona: 9

Tartekoa: 9

Txarra: 0

- Ikasleen autoebaluazioa egitea, beren iritzia kontuan hartzea positiboa da.

DBH 4: B taldea

Ona: 4

Tartekoa: 8

Txarra: 2

- Ona: frogak ez du gehiena kontatzen, talde-lana eta beste lanak ere kontuan hartzen dira, eta froga bezainbeste balio dute.
- Beste batek, hala ere, lan horiek oraindik gehiago kontatu beharko luketela, eta azterketak gutxiago.
- Eta beste batek hainbeste nota egotea txarra dela, azterketarena eta kitto izan beharko zuen.
- Ona: azterketa onartu gabe proiektua onartu daiteke.
- Txarra: frogaren onartzea zaila zen.

2. PROIEKTUA

a) Helburu nagusia

“Unitate honekin nire helburuetako bat zuek talde lanean trebatzea izan da; dieta konkretu bat zuen artean adostu eta guztien artean aurkezpen bat egiteko adostasunera iristea”

Zure ustez lortu al dugu hori? Zein da zure balorazioa?

Ona: 30

Tartekoa: 15

Txarra: 3

b) Prozedura

“Aurrekoa lortzeko, zuen kasa aritzen utzi dizuet; dieta zuek aukeratu duzue eta baita aurkezpena egiteko modua ere”.

Zer iruditzen zaizu jokaera hori? Zein da zure balorazioa?

Ona: 36

Tartekoa: 12

Txarra: 0

c) Jokaera

“Nire jokaera nagusia zera izan da: zuek zuen kasa utzi zaituztet eta nik laguntza neurtua eman dizuet”.

Zer iruditzen zaizu jokaera hori? Zein da zure balorazioa?

Ona: 35

Tartekoa: 13

Txarra: 0

d) Ebaluazioa

“Ebaluatzeke garaian zera hartu dut kontutan: talde harremana eta jarrera (2 puntu), aurkezpena (2 puntu) eta power point-a (3 puntu) eta bakarkako froga (3 puntu)”.

Zer iruditzen zaizu ebaluatzeke modu hau?

Ona: 30

Tartekoa: 12

Txarra: 4

- Talde lana eta aurkezpena ez kontatzea; power point-ak 5 puntu eta frogak 5
- Bakarkako frogari puntu gehiago emango nizkioke eta jarrera eta aurkezpenari gutxiago
- Talde harremana ez nuke kontuan hartuko, batzuk besteek baino gehiago egiten dutelako lan.

ONDORIOAK

Zailtasunak zailtasun, hutsuneak hutsune, eta akatsak akats, esperientzia ona eta interesgarria izan da irakasleentzat, eta zeharka sumatu dezakegunez ikasleentzat ere. Ikaskuntza kooperatiboan sakontzen jarraitzeko gogoak bizirik dirau irakasleengan, neurri aipagarrian.

Esperientziaren ontasuna loturik ageri zaigu ikaskuntza moldearen sakontasunean sumatu duten aurrerapenarekin;

- Aipatu da, ikasleen heldutasuna, bizitzarako nahiz ikasketetarako, bizkortu egin dela. Ardurak eman zaizkienean oro har haiei heldu dietela ikasleek.
- Aktiboagoak sentitu dira oro har ikasleak. Parte hartzaileago jokatu dute, euren heldutasun sentazioa areagotuz.
- Ikasleen motibazioa ere areagotu egin da. Berrikuntzek dakarten bultzada berriak zerikusia izan dezake horretan. Estimulazioa lantzeko jarduera ugari egin dira. Ariketa askok kutsu esperimentalak izan du, eta baita eguneroko bizitzari lotura ere. Honek zubiak eraiki ditu ikastearen eta euren jakin minaren artean.
- Ikaskuntzaren esanguratasuna handitu egin da.
- Taldean oinarriturik, ekimentsu jarduteko joera indartu zaie.
- Iritziak eta sentimenduak adierazteko bidea zabaldu zaie.
- Elkarri egokitu beharrak gehienetan elkarlan giro positibo ekarri du berekin.

Aipaturiko prozesu horietan guztietan aurrerapen ikusgarriak egin arren, prozesu luze eta korapilatsuak direla aitortu beharko genuke. Hortaz, aurrerapenak eginda ere, oraindik zabala da aurretik gelditzen den lana. Irakasleek aipaturiko zailtasun asko dira testuinguru honetan kokatu beharrekoak.

- Ikasle gehienek talde lan giroari eusten dioten arren, badira batzuk talde barruan euren erantzukizunak hartzen ez dituztenak.
- Talde lanean elkarrekiko kooperazioa ikusi den arren, zalantza dirau oraindik nola uztartu banakoen lana eta ekarpena taldeko lan eta ekarpenarekin. Irakasle batzuen aburuz taldean arituta ikasle buru-azkarren tasunak bizkortzen dira, beste batzuen aburuz ordea euren erritmoa moteltzen da eta aspertu egiten dira.
- Gehienek aktiboago eta parte hartzaileago jokatu arren, badira ikasle batzuk inplikatzeari lortzen ez dutenak.

- Ikaskuntza sakonago eta esanguratsu bihurtzen da gehienetan, baina ikuspuntu kuantitatibo batetik (zenbat gai, eduki edo informazio unitate lantzen diren) erritmoa moteltzen da ohiko jarduerarekin alderatuta.
- Talde lanerako konpetentzia lantzen eta garatzen den arren, askotan irakasleek inpresioa dute gauza asko, gehiegi agian, ari dela batera kontrolatu nahian, eta hortik dator, batzuetan, ariketa, jarduera eta arau piloaren zama. Jarduteko moduak sinplifikatu beharra aipatzen da behin baino gehiagotan.
- Zeharkako konpetentzien bilakaera era intuitiboan balioesten den arren, kezka sortzen zaio hainbat irakasleri haiek modu zehatz eta “objektiboan” ebaluatu nahi dituztenean.

Ikaskide egitasmoak ongi bideratuak ditu urratsak elkarlana konpetentzia lantzeko eta hezkuntza jardueran kokatzeko ahaleginean. Baina, horrekin batera, asko dira oraindik aurre egin behar diren erronkak, eta hobetu behar dituen alderdiak. Horretan ari gara eta horretan tinko aritzeko asmoa dugu aurrerantzean ere.